



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko apirilaren 26a

40 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru lege proiektua, Nafarroako arriskuko material espezifikoak suntsitzeko arauak ematen dituena. Osoko Bilkurak bazterretako osoko zuzenketak (2. or.).
- Foru lege proiektua, 2002-2004rako Nafarroako Enplegurako Plana finantzatzeko neurri osagarriari buruzkoa. Osoko Bilkurak bazterretako osoko zuzenketak (2. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, ezgaituak lan merkatuan sartzeari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako aurrekontu orokorrek Hirugarren Munduko herrialdeekiko elkartasunerako erabili behar duten ehuneko finkatzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (7. or.).
- Foru Lege proposamena, garapenerako lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzeko. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (8. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa alda dezan, hain zuzen ere hauteskunde prozesu guztietan demokrazia paritaria ezartzea bideratzeko behar diren neurriak jartzeko. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzearen inguruan zenbait neurri har ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erditze multipleak izan dituzten familientzako laguntza ekonomikoak alda ditzan. Osoko Bilkurak bazterretako (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da babes ofizialeko etxebizitzak deitutakoak salerosteko eskubidea arau dezan. Osoko Bilkurak bazterretako (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, nazioko gobernua premiatzen da Senatuaren birmoldaketari bultzada eman diezaien. Osoko Bilkurak bazterretako (11. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru lege proiektua, Nafarroako arriskuko material espezifikoak sunsitzeko arauak ematen dituen

OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO OSOKO ZUZENKETAK

Nafarroako Parlamentuak, 2002ko apirilaren 18an egindako Osoko Bilkuran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eta Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako arriskuko material espezifikoak sunsitzeko arauak ematen dituen Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak baztertzea erabaki zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordera bidaltzen da.

Iruñean, 2002ko apirilaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru lege proiektua, 2002-2004rako Nafarroako Enplegurako Plana finantzatzeko neurri osagarriei buruzkoa

OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO OSOKO ZUZENKETAK

Nafarroako Parlamentuak, 2002ko apirilaren 18an egindako Osoko Bilkuran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eta Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak 2002-2004rako Nafarroako Enplegurako Plana finantzatzeko neurri osagarriei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak baztertzea erabaki zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordera bidaltzen da.

Iruñean, 2002ko apirilaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, ezgaituak lan merkatuan sartzeari buruzkoa

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, ezgaituak lan merkatuan sartzeari buruzko Foru Lege proposamenari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proposamen hori 2001eko urriaren 8ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 2. lerrokada aldatzeko zuzenketa

Nafarroako administrazio publikoetako lan eskaintza publikoetan, gutxienez lanpostu betegabeen 100eko 5 ezgaituentzako gordeko da, baldin eta horien ezintasun maila 100eko 33koa edo handiagokoa izan, hauta-probak gainditu eta, hala eskatzen zaienean, aipatutako ezintasun maila eta eginkizunak burutzeko gai direla egiaztatzen badute.

Zioak: Foru lege proposameneko zazpigarren xedapen gehigarriko lehen lerrokadak proposameneko bigarren lerrokada baliogabetzen duela ulertzen dugu.

2. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA **NAFARROAKO EZKER BATUA** PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 2. lerrokada aldatu eta 2. idatz-zati bihurtzeko zuzenketa

“2. Ezgaitasuna duten pertsonen enplegu publikoa lortzeko eta enplegu publiko guztien ehuneko hirutik gorako tasa lortzeko neurriak hartuko dituzte Nafarroako administrazio publikoek. Horretarako, eskainitako lanpostuen gutxienez 100eko 5 ezgaitasuna duten pertsonentzako gordeko da, baldin eta horien ezintasun maila 100eko 33koa edo handiagokoa dutela kreditatzen badute. Pertsona horiek betetako lanpostuek ez badute deitutako lanpostuen ehuneko 3ko tasa egiten, betegabe lanpostuak hurrengo ekitaldiko ehuneko 5eko kupoari gehituko zaizkio, ehuneko 10eko gehieneko mugarekin.”

Zioak: Administrazio publikoetan ezgaitasuna duten pertsonen enplegua areagotzearen proposatzen da igoera, ezgaitasuna duten pertsonen betetzeko gordetako lanpostu kopurua Balearretako, Kataluniako eta Gaztela-Mantxako autonomia erkidegoetakoa izan dadin, haietan ehuneko 5era igo baita ezgaituentzat gordetzen den lanpostu kopurua.

3. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO **DE NAVARRA** PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua amaietan ondoko lerrokada gehitzeko zuzenketa

“Foru Komunitateko administrazioan eta haren menpeko erakunde autonomoetan arestian ezarritako ehuneko betetzen ez den bitartean, organo eskudunek aitortutako ezgaitasuna duten perso-

nek lehentasuna izanen dute aldi baterako kontratatzeko, lehiaketa-oposizioa gainditu baina lanposturik gabe gelditu direnen zerrenda agortuta-koan.”

Zioak: Bereizkeria positiboko neurriak hartzea, administrazioak aldi baterako kontratazioak eginenez kasu honetan.

4. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluarri idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa

“3. Ezgaitasuna duten pertsonak lehiaketa publikoetan aukera berdintasunean parte hartzea zaildu edo galarazten duten eragozpenak kentze-arren, hauta-prozesuak murriztuak izanen dira, gordetako lanposturako trebetasun-probak egokitu ezgaitasun fisiko, sentimenezko nahiz psikikoa duten pertsona zein talde homogeneoentzat. Halaber, lanposturako prestatzeko politika aktiboa sustatzeko neurriak hartuko dira, egin beharreko egokitzapenak eginez.”

Zioak: Errealista izan behar dugu, eta Europako herrietan orain dela 20 urte eta gurean orain dela 10 urte baliatutako neurriak hartu behar ditugu. Ezgaituen enplegu publiko eta pribatuari buruz Europan abiatutako proiektu guztiak lanpostuari egokitutako hauta-proba berezitzen bidez egiten dira, eta horietan gordetako lanposturako trebetasun-proba berariazkoak bakarrik sartzen dira. Metodologia oso bat dago garatua: lehendabizi lanpostuan egin beharreko eginkizunei buruzko azterlana eta egoera bereko pertsonen arteko proba berariazkoak egiten dira, gero lanpostuko trebakuntza dator, eta azkenik jarraipen bat egiten da. Horrek, halako kasuetan egin ohi den bezala, langileak kudeatzen dituzten artean sentsibilizazio eta informazio mailako egintzak egitea eskatzen du.

5. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa

1. artikuluarri ondoko lerroakadak gehitzea proposatzen da:

“Hauta-probak ezgaituenganako bereizkeriarik ez eragiteko, erregelamendu bidez arautuko da

Nafarroako Gobernu Lan Departamentuaren menpean batzorde berezi bat sortzea, zeinak, ezgaituen elkarteekin lankidetzan, ezarriko baititu enplegu publikoko eskaintzetan sartzeko hauta-probak aukera berdintasunean egin ahal izateko denbora aldetik egin beharreko egokitzapenak eta ezgaituek behar dituzten bitartekoak.”

Zioak: Ezgaituek enplegu publiko bat lortzeko duten arazorik behinenetako bat da enplegu publikoko eskaintzetan egokitu gabe daudela hauta-proba motak, bitartekoak eta denborak. Ezgaituen elkarteekin lankidetzan, enplegu publikoko eskaintzetan sartzeko hauta-probak aukera berdintasunean egin ahal izateko denbora aldetik egin beharreko egokitzapenak eta ezgaituek behar dituzten bitartekoak ezarriko dituen batzorde berezi bat sortzen bada, errazagoa izanen da pertsona horiek hauta-probak gainditzea eta horientzako enplegu publikoan gordetako ehunekoak betetzea.

Ezgaituak lan merkatuan sartzeko laguntzeko bestelako neurri osagarri batzuk ere hartu behar dira, hau da, hobetu egin behar da informazioaren transmisioa, enplegu publikoak eskaintzen dituen aukerak ezagut daitezen; hobetu egin behar da ezgaituen prestakuntza, horien premia bereziei egokituz; lanaldi partziala nahiz telelana ahalbidetzen duten bestelako kontratu mota batzuk sortu behar dira... Hori dena kasuan kasuko departamentuek jorratu beharko dute.

6. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat gehitzeko zuzenketa

“1. bis artikulua:

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan langileak administrazio araubidean kontratatzeko arauak ematen dituen urtarrilaren 7ko 1/2002 Foru Dekretuko 5.3 eta 7.3 c) artikuluek aipatutako kasuetan, baldin eta aurreikusitako egoerak gertatzeaz gain lanpostu horiek langile ezgaituek bete badituzte, horien eskaintza publikoa murriztu egiten da organo eskudunak ezgaituak direla aitortu dienez, eta probak inguruabar horretara egokituta egiten dira.”

Zioak: Aldi baterako lanpostuak enpleguko eskaintza publikoko lanpostu bihurtzen direnean bereizkeria positiboko neurriak hartzea.

3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

7. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa

Hamalaugarren xedapenari buruzko lerrokada aldatzea proposatzen dugu. Hona testua:

“Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuen esleipenari dagokionean, esleipendun enpresek 25 langile baino gehiago badute, enpresetako plantillako langileen % 4k, gutxienez, ezgaitua beharko du izan.

Kontratu horien enpresa esleipendunek agiri bidez kreditatu beharko dute, kontratazio organoan, plantillako langileen kopurua eta akats psikiko, fisiko edo sentimenezkoen nahiz buru-nahastearen ondorioz % 33ko minusbaliotasuna edo handiagoa kreditatzen duten pertsonekin sinatutako kontratuen kopia.”

Zioak: Testua 1. artikuluari egokitzeko, hartan % 33ko ezgaitasuna edo minusbaliotasuna –ziurtagirietan termino hori erabiltzen da– aipatzen baita. Uste dugu hobe dela xedapen hori ere arestiko testuari egokitzea; izan ere, akats larriaz hitz egiten badugu zer graduri buruz ari garen zehaztu gabe, uler daiteke % 65etik goitikoaz ari garela. Bestalde, komeni da enpresa esleipendunek baldintza betetzen dutela behar bezala ziurtatzea.

8. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat gehitzeko zuzenketa

“4. bis artikulua:

Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako Gobernuak proposatuta, behar adina kontusail gaituko du urtero Nafarroako aurrekontu orokorretan ezgaituen kolektiboaren lanerako prestakuntza eta orientabiderako, eta zehazki, bitartekoak jarriko dira ezgaituak funtzio publikoan sartzeko prestakuntza programak taxutzearen.”

Zioak: Edozein talde bazterturen aldeko bereizkeria positiboa abiatzeko modurik onena borondate politikoa, eta beraz aurrekontu arlokoa, erakustea da. Langabeziaren aurka jarduteko poli-

tika aktibo eragingarrietako bat da, hain zuzen ere, lanerako prestakuntza eta orientabidea.

9. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat gehitzeko zuzenketa

“5. artikulua. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuko Minusbalioen eta Balorazio Zentroarekin koordinazioan, laguntza emateko zerbitzu berariazko bat izanen du enplegua eskatzen duten ezgaituentzat, eskaerak, lan eskaintzak, prestazioak, prestakuntza eta lanean hasteko bestelako alderdiak jorratuko dituena.”

Zioak: Enpleguko tratu-berdintasunerako esparru orokor bat ezartzeari buruzko Europako Kontseiluaren 2000/78/CE zuzentaraua bete ahal izatea da asmoa, baina hori lortzeko beharrezkoa da administrazio-egiturak egokitzea eta eragozpenak kentzea, egin beharreko egokitzapenak eginda ezgaitasuna duten pertsonen baliabideak erabili ahal izan ditzaten eta aukerak izan ditzaten. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak pertsona horiek ere hartu behar ditu aintzat lanpostu bat eskatzen dutenean edo enpleguarekin nahiz langabeziarekin lotutako prestazio edo zerbitzu bat eskatzen dutenean.

TITULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

10. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Legearen titulua aldatzeko zuzenketa

Ondoko titulua proposatzen dugu:

“Foru Komunitatean ezgaitasuna duten pertsonen enplegua lortzeari buruzko Foru Legea.”

Zioak: Ezgaitasuna, gaixotasuna edo beste zerbait izatea ezin daiteke jarri pertsonen giza izaeraren gainetik. Egoera jakin bat bizi dugu, baina gu ez gara aldi baterako edo betiko bizi dugun egoera hori. Ez da gauza bera ezinduak edo ezintasuna duten pertsonak esatea, eta ezta drogazaleak edo drogazaletasuna duten pertsonak ere. Legeek ezin dute erabili ezgaitasun fisiko, psikiko

edo sentimenezkoa duten pertsonen tratamenduan emandako aurrerapausoetan atzera egiten duen hizkera. Gaur egun ez du beste inolako araurik erabiltzen egoeraren arabera terminorik taldeei edo pertsoneri buruz hitz egiteko.

Egokiagoa iruditzen zaigu, orobat, enplegua lortzeari buruz hitz egitea, dela enpresa publikoetan dela partaidetutakoetan edo pribatuetan, termino hori orokorragoa eta sozialagoa –eta horrenbestez erabiliagoa– baita. Ez dugu lan merkatuaren zerbitzuaz hitz egiten, baizik eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaz. Lan merkatua arautzen duten irizpideak oso lehiakorrak eta hautakorrak dira, errentagarritasun ekonomikoaren arabera, baina orain arte ez du erakutsi pertsona horiek hartzeko gai denik.

XEDAPEN GEHIGARRIEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

11. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa

“Lehena. Nafarroako administrazio publikoek beharrezkoak diren neurriak ezarriko dituzte, ezgaitasuna duten langileenganako bereizkeria zuzen nahiz zeharkakorik dakarten jarraibide, irizpide eta jarrerak gerta ez daitezen lan ingurunean.”

Zioak: Lanean sartzean zaindu behar den alderdietako bat laneko giroa da, lan mundua bezain lehiakorra den eremu batean ezgaitasuna duten pertsonenganako sor daitekeen aldeko kontrako jarrera, bereziki adimen-atzerapena edo -nahastea duten pertsonak badira. Integrazioa ez dago euren esku bakarrik. Funtsezkoa da egokitzeko garaian egiten zaien harrera.

12. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa

“Bigarrena. Enpleguko zentro bereziak eta lanbide tailerrak zentro alternatibotzat hartuko dira, enpresa arruntetan bete ezin den jarduera egokitu behar duten eta premia bereziak dituzten pertsonentzako enplegua egoera berariazkoetan mantendu eta sustatzen dutenak.”

Zioak: Enplegu arruntaren ordezkotako neurriak mantentzeko beharra hartu behar da aintzat, eta zenbaitetan sustatu ere sustatu behar dira tailer eta zentro bereziak enpresa arruntetan lan egin ezin duten pertsonentzat edo aldi batean, langabeziak luzerako jotzen duelako, lan-bitarteko hori baliatu behar duten pertsonentzat.

13. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa

“Hirugarrena. Enpresa batek ez baditu 2, 3 eta 4. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen, zehapena ezarriko zaio, azken ekitaldian lortutako irabazi garbien % 5etik administrazio kontratua berehalakoan desegiterainokoa. Isunen diruarekin ekonomia-funts bat eratuko da, aurrekontu orokorretan isla izanen duena, ezgaitasuna duten pertsonentzako baliabideak sortzeko.”

Zioak: Zehapenik ez badago, araudi indarduna bete gabe jarraituko dute, orain arte legez, enpresek; izan ere, enpresa publikoetatik hasita, ez du ia inork betetzen araudia. Bestalde, beste herrialde batzuetan gertatzen den bezala, legez ezarritako betebeharrak betetzen ez dituzten enpresek, gutxienez ere ordain ekonomikoari aurre egin behar diote, eta diru hori bakar-bakarrik erabili ahalko da bitarteko eta prestazio gutxi dituen talde horrentzako bitarteko berariazkoak lortzeko.

14. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Testuan “ezintasuna” agertzen denetan “ezgaitasuna” erabiltzeko zuzenketa

Zioak: Aldaketak hobeki erantzuten dio egungo terminologiari, baita lege proposamenaren izenburuari berari ere.

Foru Lege proposamena, Nafarroako aurrekontu orokorrek Hirugarren Munduko herrialdeekiko elkartasunerako erabili behar duten ehuneko finkatzeari buruzkoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Biltzarrak, 2002ko apirilaren 18an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako aurrekontu orokorrek Hirugarren Munduko herrialdeekiko elkartasunerako erabili behar duten ehuneko finkatzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat ez hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del

Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta 2002ko otsailaren 7ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, garapenerako lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzekoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Biltzarrak, 2002ko apirilaren 18an egindako Osoko Bilkuran, garapenerako lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat ez hartzea erabaki zuen. Proposamen hori foru parlamentari Mila-

gros Rubio Salvatierra andreak aurkeztu eta 2002ko otsailaren 7ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Hauteskunderen Araubide Orokorriari buruzko Lege Organikoa alda dezan, hain zuzen ere hauteskunde prozesu guztietan demokrazia paritariora ezartzea bideratzeko behar diren neurriak jartzeko

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2002ko apirilaren 18an egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Hauteskunderen Araubide Orokorriari buruzko Lege Organikoa alda dezan, hain zuzen ere hauteskunde prozesu guztietan demokrazia paritariora ezartzea bideratzeko behar diren neurriak jartzeko".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko apirilaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Hauteskunderen Araubide Orokorriari buruzko Lege Organikoa alda dezan, hain zuzen ere hauteskunde prozesu guztietan demokrazia paritariora ezartzea bideratzeko behar diren neurriak jartzeko

Nafarroako Parlamentuak, politikan eta instituzioetan emakumeek eta gizonen ordezkaritza berdina dituztela jabeturik, Espainiako Gobernua premiatzen du Hauteskunderen Araubide Orokorriari buruzko egungo Lege Organikoa aztertu eta alda dezan, horrela hauteskunde prozesu guztietan demokrazia paritariora ezartzea bideratzeko behar diren neurriak ezartzeko. Paritate horrek bermatu behar du hautagai-zerrenden lehendabiziko postuetan gizonen eta emakumeen kopuruak antzekoak izan daitezen.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzearen inguruan zenbait neurri har ditzan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2002ko apirilaren 18an egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzearen inguruan zenbait neurri har ditzan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan

ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko apirilaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**Erabakia. Horren bidez,
Nafarroako Gobernua premiatzen
da ikuskizun publikoak eta
josteta jarduerak arautzearen
inguruan zenbait neurri har ditzan**

1. Nafarroako Gobernua premiatzen dugu elkarrizketa mahai bat sor dezan eta, bertan, ikuskizun publikoen eta josteta jardueren ordutegia arautzearen Nafarroako Gobernuak, hurrengo hilabeteotan, onesteko asmoa duen dekretuak eragiten dien sektore guztiak egon daitezela ordezkaturata: ostalaritza, auzoen elkarteak, Gaztediaren Kontseilua, etab. Mahai horrek ados jartze-

ko bidea emanen duenez, helburua da denentzako ona den akordio batera heltzea.

2.- Nafarroako Gobernua premiatzen dugu azterlan sozioekonomiko bat egin eta neurtu dezan dekretu horrek zer eragin izan dezakeen ostalari-tzan.

3.- Nafarroako Gobernua premiatzen dugu azterlan soziologiko bat egin eta neurtu dezan dekretu horrek zer eragin izan ditzakeen Nafarroako gizartearen aisialdi ohituretan –gazteen ohituretan bereziki–, eta zer eragin, halaber, bide segurtasunean. Nafarroako Gobernuak, horretarako, Gaztediaren Kontseiluarekin edo beste gazte erakunde batzuekin aritu beharko luke lankidetzan.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erditze multipleak izan dituzten familientzako laguntza ekonomikoak alda ditzan

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erditze multipleak izan dituzten familientzako laguntza ekonomikoak alda ditzan”.

Biltzarreko Osoko Bilkurak, 2002ko apirilaren 18an egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa

baztertu zuen. Mozio hori 2001eko urriaren 8ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da babes ofizialeko etxebizitzak deitutakoak salerosteko eskubidea arau dezan

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da babes ofizialeko etxebizitzak deitutakoak salerosteko eskubidea arau dezan”.

Biltzarreko Osoko Bilkurak, 2002ko apirilaren 18an egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2001eko azaroaren 26ko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, nazioko gobernuia premiazen da Senatuaren birmoldaketari bultzada eman diezaion

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, nazioko gobernuia premiazen da Senatuaren birmoldaketari bultzada eman diezaion".

Biltzarreko Osoko Bilkurak, 2002ko apirilaren 18an egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa

baztertu zuen. Mozio hori 2002ko martxoaren 27ko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak
Helbidea
Telefonoa *Hiria*
P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	